



**MEMORIAREN EGUNA  
2022eko Azaroaren 10a**

Urtero egin ohi dugun moduan, Lasarte-Oriako bizikidetzako mahaiko kideek memoriaren egunarekin bat egin nahi dugu, motibazio politikoko indarkeriaren ondorioz, giza eskubideen urraketak eta beste sufrimendu mota batzuk jasan dituzten pertsona guztiei gure elkartasuna adierazteko. Aurten ere, sufrimendu mota guztiak aitortzeko dugun borondatea berretsi nahi dugu eta biktima guztientzat egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatu. Alderdikeriak alde batera utziz eta giza eskubideekiko eta pairatutako minarekiko erabateko errespetua adieraziz. Udaleko bizikidetzako mahaitik, gure iraganera begiratzeko bide partekatu bat egiten jarraitzen dugu, modu diskretuan eta mahaiko kide bakoitzak dituen bizipenak, ikuspuntuak eta erritmoak errespetatuz. Bidea batzuetan malkartsua bada ere eta emandako pausoak nahi baino motelagoak, hartutako erabakiak eta emandako pauso horiek elkarlanean eta adostasunean ematen ditugu, egiten duguna benetan sinetsiz.

Gaurko egunean herritar taldeko kideak batu zaizkigu aitortzara, beraien zigilu pertsonala jarri eta euren aportazio berezia eginez. Herritar taldea motorretako bat izan da herriko bizikidetzan, biktimekin eta motibazio politikoaren ondorioz sufrimendu desberdinak pairatu dituzten "bizilagunekin" gauzatu duten lanketa baliagarriagatik. Beraz, Udaleko bizikidetzako mahaiko kide guztion aldetik milesker!

Bukatzeko, aurten bereziki, desberdinen arteko elkarrizketa espazioen garrantzia azpimarratu nahi dugu, partekatze eta batez ere enpatiaz entzuteko espazioen boterea aldarrikatuz. Biktimen, sufritu duten pertsonen, eta herriko "bizilagunen" arteko elkarrizketarako espazio seguruak ezinbestekoak dira gure iraganera begiratu, gertatutako giza eskubideen urraketa guztiak eta sufrimenduak mahai gainean jarri eta irakurketa partekatu bat egiteko. Giza eskubideen markoa oinarri hartuz eta herriko pertsona desberdinen testigantzei bere lekua emanaz. Izan ere zenbakien atzean, pertsonak baitaude, euren bizipen pertsonalekin, gertatutakoa gainditu eta bizitzan aurrera egiten saiatzen ari diren pertsonak. Gizarte moduan aurrera egin nahi badugu eta iraganean gertatutakoaz ikasi, hitz egin behar dugu, elkar entzun eta elkar ulertzen saiatu, nahiz eta ehuneko ehunetan ados ez egon bestearekin. Isiltasuna nagusi izan da urte askotan gure herrian, gizartea polarizatua bizi izan da eta sufritu duten pertsonetako enpatia falta nabarmena izan da. Horregatik hitz egin dezagun, elkarri entzun, momenturen batean, bestearen errelatoan topo egingo dugu eta.

Lasarte-Orian, 2022eko azaroaren 10ean.



## **Día de la Memoria**

**10 de Noviembre de 2022**

Como todos los años, las personas que conformamos la mesa de convivencia de Lasarte-Oria queremos sumarnos al día de la memoria, para mostrar nuestra solidaridad a todas las personas que han sufrido vulneraciones de derechos humanos y otro tipo de sufrimientos, como consecuencia de la violencia de motivación política. Un año más, queremos reafirmar nuestra voluntad de reconocer todo tipo de sufrimiento y reivindicar verdad, justicia y reparación para todas las víctimas. Dejando de lado los partidismos y manifestando un respeto absoluto por los derechos humanos y el dolor padecido. Desde la mesa de convivencia del Ayuntamiento seguimos haciendo nuestro camino para mirar al pasado de forma compartida, desde la discreción y respetando las vivencias, los puntos de vista y ritmos de cada una de las personas que formamos esta mesa. Aunque en ocasiones el camino es abrupto y más lento de lo que desearíamos, las decisiones que tomamos y los pasos que damos son desde el consenso y creyendo firmemente en lo que hacemos.

Hoy, se han unido a este reconocimiento el grupo ciudadano, con su sello personal y su aportación especial. Este grupo es sin duda uno de los motores de la convivencia en el pueblo, por su labor incansable con las víctimas y con los vecinos y vecinas que han sufrido la violencia de motivación política. Por todo ello, ¡Gracias de parte de la mesa convivencia del Ayuntamiento!

Por último, este año queremos subrayar la importancia de los espacios de diálogo entre diferentes, reivindicando el poder de estos espacios para compartir y sobre todo escuchar con empatía. Espacios de diálogo seguros que son imprescindibles para mirar a nuestro pasado, poner sobre la mesa todas las vulneraciones de derechos humanos y sufrimientos y poder hacer así una lectura compartida. Diálogo entre víctimas, personas que han sufrido, vecinos y vecinas del pueblo, tomando como base el marco de los derechos humanos y dando cabida a los testimonios. Porque más allá de las cifras, hay personas que, con sus vivencias personales, están tratando de superar lo ocurrido y avanzar. Si queremos progresar como sociedad y aprender de nuestro pasado, tenemos que hablar, escucharnos e intentar entendernos, aunque no estemos al cien por cien de acuerdo con quien tenemos a lado. El silencio ha sido protagonista durante muchos años, la sociedad ha vivido polarizada y la falta de empatía hacia las personas que han sufrido ha sido evidente. Por eso hablemos, escuchémonos, porque seguro que en algún momento nos encontraremos en el relato del otro.

En Lasarte-Oria, a 10 de noviembre de 2022.